

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA ENPLEGU SAILA

Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

EBAZPENA, Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde ordezkaritza, Esnelat, S.L. enpresaren hitzarmen kolektiboaren erregistro, gordailu eta argitarapena agintzen duena (20103942012018 kodea).

AURREKARIAK

Lehenengoa. 2021eko abenduaren 30ean, enpresako zuzendaritzak eta langileen ordezkariek sinatu zuten aipatutako hitzarmen kolektiboa.

Bigarrena. 2022ko otsailaren 24an, aurkeztu zen Lurralde Ordezkaritza honetan, adierazitako hitzarmenaren erregistro, gordailu eta argitalpen eskaera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 90.2 artikuluan aurreikusitako eskuduntza, lan agintaritzari honi dagokio, honako arautegiaren arabera: Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 14.1.g artikulua (2021-01-29ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*); urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretua (2011-2-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua (2010-6-12ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzkoak.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmen kolektiboak aurretik aipatutako Langileen Estatutuaren Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak betetzen ditu.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko eta gordailutzeko, eta aldeei jakinarazteko agindua ematea.

Bigarrena. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Donostia, 2022ko martxoaren 1a.—Víctor Monreal de la Iglesia, lurralde ordezkaria. (1230)

Hitzarmen kolektiboa. Esnelat SL. Aldia: 2020 - 2023.

1. artikulua. Lurralde eremua.

Hitzarmen honetan jasotako arauak Esnelat SL elkartearen osatzen duten langile guztiei aplikatuko zaie.

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, Esnelat SLk ezingo du sozietatea berregituratu, bereizi edo enpresaren zati bat bese-terendu, ondorioz langile bat edo langileen talde bat hitzarmen honetatik kanpo geratzen bada.

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO

Delegación Territorial de Gipuzkoa

RESOLUCIÓN del Delegado Territorial de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del convenio colectivo de Esnelat, S.L. (código 20103942012018).

ANTECEDENTES

Primero. El día 30 de diciembre de 2021, se suscribió el convenio citado por la dirección de empresa y la representación de los trabajadores.

Segundo. El día 24 de febrero de 2022, se presentó en esta Delegación Territorial solicitud de registro, depósito y publicación del referido convenio.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero. La competencia prevista en el art. 90.2 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el art. 14.1.g del Decreto 7/2021, de 19 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 29-01-2021) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Trabajo y Empleo, en relación con el Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15-2-2011) y con el Real Decreto 713/2010, de 28 de mayo (*Boletín Oficial del Estado* de 12-6-2010) sobre registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos.

Segundo. El convenio colectivo ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

RESUELVO

Primero. Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de Convenios y Acuerdos Colectivos, con notificación a las partes.

Segundo. Disponer su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 1 de marzo de 2022.—El delegado territorial, Víctor Monreal de la Iglesia. (1230)

Convenio colectivo Esnelat S.L. Año 2020 - 2023.

Artículo 1.º Ámbito territorial.

Las normas recogidas en este Convenio serán de aplicación para todos/as los/as trabajadores/as integrantes en la sociedad Esnelat S.L.

Durante la vigencia del presente Convenio, Esnelat S.L. no podrá hacer reestructuraciones societarias, segregaciones o enajenaciones parciales de empresa, que dejen fuera del mismo a ningún/a trabajador/ra o grupo de trabajadores/as.

2. artikulua. Langile eremua.

Plantillako langile guztiak sartzen dira, 7. artikuluan jasotako lanbide- desberdinetan; salbuetsita geratzen dira zuzendaritza- karguak eta aipatu artikuluan agertu ez diren lanbide-ka- tegoriak.

3. artikulua. Denbora eremua.

Hitzarmen hau sinatu eta biharamunean jarriko da indarrean, atzerako eraginarekin, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Iraupen-epaia lau urtekoa izango da: 2020, 2021, 2022 eta 2023.

Hitzarmena denuntziatuzat joko da, modu adierazian, dato- rren 2023ko urriaren 1ean. Hitzarmena denuntziatu dela adie- razten denean, alderdi biek konpromisoa hartzen dute hama- bost eguneko epean negoziazio-batzordea eratu eta hitzarmen berria negoziatzen hasiko direla.

Hitzarmen hau hori ordezkatuko duen hitzarmen berria sina- tu arte egongo da indarrean.

4. artikulua. Batzorde paritarioa.

1. Hitzarmen hau interpretatzean, indarrean egotean eta aplikatzerakoan sor daitezkeen arazoak aztertzeo eta ebazteko Batzorde Paritario bat eratuko da. Arestian aipatutako arazoak hitz eginez konpontzea izango da Batzorde Paritarioaren eginki- zuna, langileen informazio eta parte hartzeo eskubideak susta- tuz, baina enpresaburuaren antolatzeo eta zuzentzeo boterea zainduz, betiere.

2. Batzorde Paritarioaren sindikatu-atal bakoitzeko ordezkar- i bat egongo da eta beste hainbeste kide, enpresaren aldetik. Al- derdi biek aholkulariak izendatu ahal izango dituzte; bileretara joan eta hitz egiteko eskubidea izango dute, baina botorik ez.

3. 1. puntuaren azaldutako gai guztiak Batzorde Paritarioaren jorratuko ditu alde aurretik. Batzordeko alderdietako bata- k zein besteak egin dezake ohiko bilera egiteko deia. Horretarako, gu- txienez 15 egun lehenago idatziz eskatu beharko du, eskaeran gai-zerrendako puntu guztiak, bilera-eguna eta tokia zehatz- me- hatz azalduta. Bi alderdiek ezinbestean joan beharko dute bat- zordera. Deialdia egiten den egunetik bilera egunera bitarteko denbora murriztu egin ahal da, bi alderdiak ados egonez gero.

4. Batzorde Paritarioaren baitan sor daitezkeen desad- os- tasunak 2000ko otsailaren 16ko Lan gatazkak ebazteko boron- datezko prozedurei buruzko lanbide arteko akordioari (Preco) ja- rraikiz ebazteko dira (2000ko apirilaren 4ko *Euskal Herriko Agin- taritzaren Aldizkarian*).

Beren-beregi ezarri da arbitraje-prozedura soilik aplikatuko dela baldin eta alderdi biek gehiengoz erabakitzen badute hari men egingo diotela.

5. artikulua. Arau osagarriak.

Hitzarmen honetan ezarri ez den kontu orori dagokionez, in- darrean dagoen legeria aplikatuko da. Une oro, Langileen Esta- tutua aplikatuko da, zuzenean edo hitzarmen honen ordez.

6. artikulua. Urteko lanaldia, lan-txandak eta ordutegiak.

6.1. Urteko lanaldia:

Hitzarmen honen indarraldi osoan, urteko lanaldia 1.661 pre- sentzia-ordukoa izango da, ekoizpenean zein zerbitzuetan. Admi- nistrazio-langileentzat, urteko lanaldia 1.641 presentzia-ordukoa izango da.

6.2. Lan-txandak:

6.2.1. Lan-arabidea.

Urte bakoitzeko urriaren amaieran, enpresak hurrengo urte- ko lana antolatzeo plana aurkeztuko dio Enpresa Batzordeari, antolamenduaren gidalerro nagusiak jasotzen dituen.

Artículo 2.º Ámbito personal.

Comprende a todo el personal de plantilla en sus distintas categorías profesionales recogidas en el art. 7.º quedando ex- ceptuados los cargos directivos y las categorías profesionales que no se incluyen en el citado artículo.

Artículo 3.º Ámbito temporal.

El presente Convenio entrará en vigor el día siguiente de su firma, con carácter retroactivo al día 1 de enero de 2020.

Se estipula un plazo de duración de cuatro años: 2020, 2021, 2022 y 2023.

Este Convenio se considerará denunciado expresamente el próximo 1 de octubre de 2023. Cuando este Convenio quede denunciado expresamente, ambas partes se comprometen a constituir la comisión negociadora e iniciar la negociación del nuevo convenio en el plazo de quince días.

Este Convenio mantendrá su vigencia hasta que se firme uno nuevo que lo sustituya.

Artículo 4.º Comisión paritaria.

1. Se constituye una Comisión paritaria con el fin de exa- minar y resolver cuantas cuestiones se deriven de la interpreta- ción, vigencia y ámbitos de aplicación del convenio. El objeto de esta Comisión será intentar resolver de forma dialogada las cuestiones anteriormente descritas, reforzando el derecho de información y participación de los/as trabajadores/as, pero manteniendo en todo caso el poder de organización y dirección del empresario.

2. La Comisión Paritaria estará integrada por un miembro titular en representación de cada sección sindical y el mismo nú- mero de miembros en representación de la parte empresarial. Ambas partes podrán nombrar asesores que podrán asistir a las reuniones con voz pero sin voto.

3. Todas las cuestiones descritas en el apartado 1 serán sometidas con carácter previo a la Comisión Paritaria que con carácter ordinario se reunirá a petición de cualquiera de las par- tes, debiendo solicitarlo por escrito con un mínimo de 15 días de antelación a la celebración de la misma, con concreción pre- cisa y detallada de los puntos a tratar reflejados en el orden del día, fecha y lugar de la reunión, siendo obligatoria la compare- cencia por ambas partes. El período de tiempo entre la convo- catoria y el día de la reunión podrá reducirse de mutuo acuerdo.

4. Las discrepancias que se produzcan en el seno de la de la Comisión Paritaria, se solventarán de acuerdo con los procedi- mientos regulados en el Acuerdo Interprofesional sobre procedi- mientos Voluntarios de Resolución de Conflictos Colectivos (Preco) de 16 de febrero de 2000 (*Boletín Oficial del País Vasco* de 4 de abril de 2000).

Se establece expresamente, que el procedimiento de arbi- traje se aplicará únicamente mediante acuerdo de sometimien- to al mismo por la mayoría de ambas partes.

Artículo 5.º Normas complementarias.

En todo lo no previsto en el presente Convenio, será de apli- cación la legislación laboral vigente. En todo caso, será de apli- cación directa o supletoria el Estatuto de los Trabajadores.

Artículo 6.º Jornada anual, turnos de trabajo y horarios.

6.1. La jornada anual:

Durante toda la duración del presente Convenio, la jornada anual en producción y servicios será de 1.661 horas de presen- cia. Para administración, la jornada anual será de 1.641 horas de presencia.

6.2. Turnos de Trabajo:

6.2.1. Régimen de trabajo.

A finales de octubre de cada año, la empresa presentará al Comité de Empresa el plan de organización de trabajo del año si- guiente que recogerá las líneas maestras de dicha organización.

Hurrengo urteko lana antolatzeke plana ezagutzera eman eta Enpresa Batzordeari aurkeztuta, banakako egutegiak egingo dira, eta Batzordeak onartu ondoren, urte bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen banatuko dira.

Ontziratze atalak eta industria-zerbitzuek hiru txandatan egingo dute lan, hau da, astelehenetik ostiralera, urteko jaieguna barne, jaieguna gisa ezarritako 4 egunetan izan ezik, gaueko, arratsaldeko eta goizeko txandetan; hala ere, urtean zehar aldatu egon daitezke txandetan, ekoizpen-beharrak betetzeko. Larunbatetan goizeko txandan eta igandeetan gauekoan egingo da lan (4 jaiegunetan izan ezik). Urteko lanaldiari dagokionez, abenduaren 31n egongo den saldoa, langilearen alde edo ez, urte bakoitzeko urtarrilaren 31 baino lehen langileari jakinarazi beharko zaio, eta martxoaren 31 baino lehen erregularizatu.

Materia osagarrien biltegian, langile bat txandako egongo da, astelehenetik larunbatera goizez eta astelehenetik ostiralera arratsaldean, eta jaiegunetan goizez.

Jaieguna guztiak lan-egutegian jasoko dira, salbu urtarrilaren 1a, urtarrilaren 20a, maiatzaren 1a eta abenduaren 25a, egun horietan lan egin behar duten atalazko egutegietan izan ezik.

Seihileko bakoitzean (urrian eta apirilean) Zuzendaritzak Enpresa Batzordea bilduko du eta ekoizpeneko eta antolamenduko beharrak jakinaraziko dizkie, eta horiek aldatu egin ahal izango dute adostutako lan-erregimena –larunbat goizak eta igande gauak-. Alderdi biek aldatuak onartu eta gero, eragindako atalek eta lanpostuek bete beharko dituzte; aldatuak urteko lan-egutegian adieraziko dira.

6.2.2. Ekoizpenetik kanpo geratzen diren jaiegunak.

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, ekoizpen-lanaren (ontziratze-lanaren) erregimen orokorretik kanpo geratuko dira urtarrilaren 1a, urtarrilaren 20a, maiatzaren 1a, abenduaren 25a eta abenduaren 24ko eta 31ko arratsalde-gauak.

Abenduaren 24ko eta 31ko arratsaldeko txandan, mantentze-atalean, baita galdaren gelan, kontsola-gelan, harrera-lekuan eta kalitate-laborategian ere, langile bana egongo da, 14:00etatik 18:00etara. Ordu horiek lanaldi osoa balitz bezala kontabilizatuko dira.

Urtarrilaren 20an, esnea biltzeko eta kamioiak kargatzeko ezinbestekoak diren ataletan lan egingo da. Goizeko txandan, honako atal hauek izango dira: esnea jasotzeko atala (2 langile), kontsola, kalitate-laborategia, galdaren gela, mantentzea (langile bat atal bakoitzeko).

Goizez: jaieguna hori astelehenetik ostiralera bitarteko eguna denean, 3 langile egongo dira kamioiak kargatzeko. Jaieguna larunbata denean, 2 langile egongo dira kamioiak kargatzeko.

Arratsaldez: Honako atal hauek lanean egongo dira arratsaldeko txandan, baldin eta jaieguna igandea ez bada.

– Astelehenetik ostiralera bitarteko eguna denean, 2 langile egongo dira kamioiak kargatzeko eta langile bat mantentze-lanak egiteko.

– Larunbata bada, langile bana kamioiak kargatzeko eta mantentze-lanak egiteko.

Maiatzaren 1ean, atal bereberak egingo dute lan, urtarrilaren 20an bezalako langile kopuruarekin, kamioiak kargatzeko atalean izan ezik.

6.3. Larunbatak, igandeak eta ekoizpenik gabeko jaiegunak:

6.3.1. Ekoizpenik gabeko larunbat arratsaldeak:

– Kontsola gelan, kalitate-laborategian, harrera, logistika atalean eta galdaren gelan arratsaldeko txandan egingo da lan (langile bat atal bakoitzeko).

Una vez conocido y presentado el Plan de organización del trabajo del año siguiente al Comité de Empresa, se elaborarán unos calendarios individuales que serán aprobados por el comité y después serán distribuidos antes del 31 de diciembre de cada año.

Las secciones de envasado y servicios industriales trabajarán en régimen de a tres turnos, entendiéndose como tal el trabajo de Lunes a Viernes, incluidos los festivos anuales, excepto 4 días indicados como festivos, mediante rotación de noche, tarde, mañana, si bien la misma se verá afectada a lo largo del año, con los cambios de turno necesarios para cubrir las necesidades de producción. Los sábados se trabajará en turno de mañana y los domingos de noche (excepto los 4 festivos). El saldo resultante de la jornada anual al 31 de diciembre a favor o en contra del/la trabajador/ra, deberá ser comunicado al/ a la trabajador/ra antes del 31 de enero de cada año y regularizado antes del 31 de marzo.

En almacén de materias auxiliares 1 persona por turno, tendrán un régimen de trabajo de lunes a sábado de mañana y de lunes a viernes tarde y los festivos en turno de mañana.

Todos los festivos estarán dentro del calendario laboral excepto los días 1 de enero, 20 de enero, 1 de mayo y 25 de diciembre, excepto para aquellas secciones que tengan que trabajar en dichas fechas.

Cada semestre, (en los meses de octubre y abril) la Dirección reunirá al Comité de Empresa e informará sobre las necesidades productivas y organizativas que podrán hacer variar o no el régimen acordado de Sábado mañana y Domingos noche. Una vez acordados los cambios por ambas partes, las mismas serán cubiertas por las secciones y puestos afectados y reflejados en el calendario anual.

6.2.2. Festivos excluidos de producción.

Durante la vigencia del presente Convenio, quedan excluidos del régimen general de trabajo productivo de envasado, los días 1 de enero, 20 de enero, 1 de mayo, 25 de diciembre y las tardes-noches de los días 24 y 31 de diciembre.

Los días 24 y 31 de diciembre en turno de tarde trabajará 1 persona en las secciones de mantenimiento, calderas, consola, recepción y calidad-laboratorio de 14:00 h a 18:00 h a los cuales se les contabilizará como jornada completa.

El día 20 de enero trabajarán las secciones indispensables para la recogida de leche y carga de camiones. Las secciones afectadas en turno de mañana serán las siguientes: recepción de leche (2 personas), consola, calidad-laboratorio, calderas, mantenimiento (1 persona por sección).

Mañanas: cuando este festivo caiga de lunes a viernes, carga de camiones 3 personas. Cuando el festivo caiga en sábado, carga de camiones 2 personas.

Tardes: Se trabajará en turno de tarde las siguientes secciones siempre que este festivo no caiga en domingo.

– Si cae de lunes a viernes carga de camiones 2 personas y mantenimiento 1 persona.

– Si cae en sábado 1 persona carga de camiones y 1 mantenimiento.

El día 1 de mayo trabajarán las mismas secciones y el mismo número de personas por sección que el día 20 de enero, a excepción de la carga de camiones.

6.3. Sábados, domingos y festivos no productivos:

6.3.1. sábados tarde no productivos:

– Consola, Calidad-laboratorio, recepción, logística y calderas trabajarán en turno de tarde (1 persona por sección).

– Prebentzio mantentzea: Arratsaldeko txandan egingo da lan (3 langile atal bakoitzeko).

6.3.2. Igandeak eta ekoizpenik gabeko jaiegunak:

Igande goizez:

– Ekoizpena, kotsola-gela, kalitate-laborategia, mantentze-lanak eta galderen gela (langile bat atal bakoitzeko), harrera (2 langile ataleko).

Igande gauez:

– Ekoizpen arduraduna, kotsola gela, elaboratzeak, UHT, betetzeko makinak, ekoizpen-linearen amaiera, galdarak, mantentze-lanak, harrera, laborategia.

Jaiegunak:

– Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean, honako atal hauek egingo dute lan: esnea jasotzeko atala, elaboratze atala, kotsola gela, kalitate-laborategia, mantentze-lanak eta galdera gela (langile bat atal bakoitzeko); lan-ordutegia 08:00etatik 12:00etara edo 12:30era izango da eta lanaldi osoa balitz bezala kontabilizatuko da.

Larunbat gauetan eta igandeetan ez da prebentziozko mantentze-lanik egongo.

6.4. Ordutegiak:

A) Ekoizpena eta zerbitzuak:

Txanda desberdinetako lan-ordutegiak honako hauek izango dira: 06:00etatik 14:00etara, 14:00etatik 22:00etara eta 22:00etatik 06:00etara.

Abenduaren 24ko eta 31ko arratsaldeko eta gaueko txandetan lan egin behar duten langileek atsedena hartuko dute eta ordu horiek atsedena-ordu gisa zenbatuko dira, urteko ordu kopuruan.

B) Administrazioa.

1. Lanaldi trinkoa: Ekainetik irailera.

Lanaldia astelehenetik ostiralerakoa izango da, 7 ordu eta 24 minutukoa; 08:00etatik 14:00etara bitarteko orduak derri-gorrezkoak izango dira eta ordubeteko malgutasuna egongo da, egunean egokitu behar dena.

Ekainaren 1etik 15era edo irailaren 15etik 30era, saileko langile guztiek, txandaka, astebetetz lanaldi zatituko ordutegian egingo dute lan, enpresak aldi horretan izan ditzakeen beharrak betetze aldera; gainerako asteetan lanaldi trinkoa izango dute, ekainaren 15etik irailaren 15era bitarteko aldi bezala.

Une horretan lanaldi zatiturik behar ez duten atalek edo eginkizunek aurreko paragrafoan ezarritako ordutegia beteko dute, zerbitzuaren premiagatik aldatu arte; horrela gertatzen denean, eragindako langileak lanaldi zatituan lan egiten hasiko dira, modu jarraituan, hitzarmen honetan ezarritako baldintzetan.

2. Lanaldi zatitua: Urritik maiatzera (biak barne):

Kontuan hartuta bezeroei, hornitzaileei eta abarrei egun osoan arreta eman behar zaiela eta zuzendaritzak langileekin akordioa sinatu zuenean, 1995eko abuztuaren 21ean, enpresan lan egiten zuten administrazioako langile batzuen lanaldia goizekoa zela, arreta emateko premia horri erantzute aldera, ondoan adierazitako lan-ordutegia ezarri zen, gaurdaino mantendu dena, jarraian azaldutakoarekin bat:

Zuzendaritzak hala eskatzen duenean, urritik maiatzera (biak barne), administrazioari atxikitako langileek honako ordutegi honetan eman beharko dute zerbitzua:

– Mantenimiento preventivo: Trabajarán en turno de tarde (3 personas por sección).

6.3.2. Domingos y festivos no productivos:

Domingos mañana:

– Elaboración, consola, Calidad-laboratorio, mantenimiento y calderas (1 persona por sección), recepción (2 personas por sección).

Domingos noche:

– Encargado de producción, consola, elaboraciones, UHT, llenadoras, final de línea, calderas, mantenimiento, recepción, laboratorio.

Festivos:

– Los días 25 de diciembre y 1 de enero, se trabajará en las secciones de recepción de leche, elaboración, consola, Calidad-laboratorio, mantenimiento y calderas (1 persona por sección) siendo el horario de 8 a 12/12:30 horas y se contabilizará como una jornada completa.

En ningún caso habrá mantenimiento preventivo, los sábados-noche y domingos.

6.4. Horarios:

A) Producción y servicios:

Los horarios de trabajo de los distintos turnos serán de 6:00 a 14:00, 14:00 a 22:00 y de 22:00 a 6:00 horas.

El personal que le corresponda trabajar los días 24 y 31 de diciembre en turnos de tarde y noche, descansará, computándose dichas horas como descansadas dentro de la jornada anual.

B) Administración.

1. Jornada intensiva: Desde junio a septiembre.

Jornada de Lunes a viernes de 7 horas y 24 minutos con horario bloqueado de 8:00 horas a 14:00 horas y 1 hora de flexibilidad horaria con ajuste diario.

Entre el 1 y el 15 de junio o entre el 15 y 30 de septiembre, cada persona afectada deberá trabajar una semana en horario de jornada partida, rotándose entre las personas del departamento, al objeto de que la empresa cubra sus necesidades en dicho periodo, siendo la jornada del resto de las semanas de intensiva, al igual que entre el 15 de junio y el 15 de septiembre.

Para todas aquellas secciones o funciones que no precisen actualmente de la jornada partida, el horario será el establecido en el párrafo anterior, hasta que se modifique por necesidades de servicio, momento en el que el personal afectado pasará a jornada partida de forma continuada, en las condiciones establecidas en el presente Convenio.

2. Jornada partida: Desde octubre a mayo (ambos inclusive):

Teniendo en cuenta la necesidad de cubrir la atención a los clientes, proveedores, etc., a lo largo de todo el día y que la jornada de parte del personal administrativo existente a la firma del acuerdo suscrito entre la Dirección de la Empresa y la parte social el 21 de agosto de 1995, era de mañana, al objeto de dar respuesta a dicha necesidad, se estableció el siguiente horario que se mantiene en el día de la fecha conforme a lo que se indica a continuación:

En el caso de que la Dirección lo requiera, el personal adscrito a administración deberá prestar sus servicios durante los meses comprendidos entre octubre y mayo (ambos inclusive) con el siguiente horario:

	Sarrera / Entrada	Irteera / Salida
Astelehenetik ostegunera / Lunes a jueves	8:00 – 9:00 14:45 – 15:30	13:30 – 14:00 17:00 – 18:30
Ostirala / Viernes	8:00 – 9:00	13:30 – 15:00

Lanera sartzeko eta irteteko orduak malguak izango dira, langilearen aukeran; derrigorrezko orduak honako hauek izango dira: 09:00etatik 13:30era eta 15:30etik 17:00etara, astelehenetik ostegunera, eta 09:00etatik 13:30era ostiraletan. Lanaldia hamabostean behin egokituko da.

Lanaldi zatitua denean, 2021ean, enpresak ordu horietan lan egin behar duen langile bakoitzari 6,188 euro ordainduko dio goizeko eta arratsaldeko ordutegian lan egindako lanegun bakoitzeko; diru-kopuru hori hileroko ordainduko da, lanaldi zati-tuagatik prima gisa. Zenbateko hori soldatak igotzen diren ehu-neko berean eguneratuko da.

Era berean, abenduaren 24an eta 31n lan egingo duten ad-ministrazioko langileek egun horietako batean atsedena hartu-ko dute, eta ordu horiek lanordu eta/edo atsedeen-ordu gisa zen-batuko dira urteko ordu kopuruaren baitan.

6.5. Lan txandak eta ordutegiak berregokitzea:

Enpresak eta langileen ordezkariak laneko txandei eta ordu-tegiei buruzko apartatuan zehaztutakoa berrikusi eta benetako zerbitzu-premiaren arabera egokitu ahal izango dute, bi alder-diak ados egonez gero.

6.6. Lanaldi etengabeko atsedentaldia:

Enpresak antolaketa-sistema bat (baliabide teknikoak eta giza-baliabideak) ezarriko du, prozesu industrialak eta tekniko-ak eten beharrik gabe, arauzko 15 minutuko atsedentaldia (En-presaren kontura) hartzeko eskubidea bermatzeko.

6.7. Hitzartutako lanaldiaren gaineko ordu-poltsa:

Ezarritako urteko lanaldia kontuan hartuta, eta urteko lan-egutegia prest dagoenean, lan-egutegi horretan jasotako egun/or-duak gehiegi badira, horiek hartu ahal izango dira, honako irizpide hauekin bat:

1. Lehenengo 2 egunak, langileak aukeratutakoak, 8. arti-kuluan adierazitako 13 egun jarraituko oporraldiari gehituko zaizkio.
2. Langileak aukeran izango du poltsako orduen % 50 8.3 artikuluan ezarritako aldietatik kanpo hartzea, baldin eta lan-postu eta/edo atal berean diharduten beste langileekin batera egiten ez badu, antolaketa arazorik ez sorrarazteko. Enpresak eskubidea bermatzeko behar diren erreleboak eta/edo txandak alda ditzake.

Langileak 3. hiru hilera amaitu baino lehen aldi horri dagoz-kion atsedeen-egunak hartu ez baditu, 4. hiru hilera eskatu ahal izango ditu; egun horiek enpresaren zuzendaritza ados egonez gero emango zaizkie, 15 egun baino lehen jakinarazita.

6.8. Makinak abiaraztea:

Galdarak martxan jartzea 4 jaiegunetako baten ondoren, ekoizpen-aldia hasi aurretik:

– Galdarak: langile batek 05:00etatik 14:00etara lan egin-du.

Igande goizez:

– Harrera: langile batek 05:00etatik 13:00etara lan egingo du.

El horario de entrada y salida del trabajo se realizará de forma flexible y a opción del/la trabajador/ra con horario blo-queado de 9:00 horas a 13:30 horas y de 15:30 horas a 17:00 horas de Lunes a Jueves, y de 9:00 horas a 13:30 horas los Viernes. El ajuste a la jornada laboral se realizará quincenal-mente.

En el caso de jornada partida, la empresa en el año 2021 abonará a cada trabajador/ra afectado por dicho horario, la cantidad de 6,188 euros por día laborable trabajado en horario de mañana y tarde, que se abonará mensualmente como prima por jornada partida. Este importe será actualizado en el mismo porcentaje que los salarios.

Así mismo, el personal administrativo que preste sus servi-cios en la mañana de los días 24 y 31 de diciembre, tendrá des-canso en uno de los dos días, computándose dichas horas como trabajadas y/o descansadas dentro del cómputo de la jor-nada anual.

6.5. Readaptación de turnos y horarios de trabajo:

Lo especificado en el apartado de turnos y horarios de traba-jo, podrá ser revisado por la Empresa y la representación de los/las trabajadores/ras, adaptando los mismos a las necesida-des reales de servicio, siendo de mutuo acuerdo entre las partes.

6.6. Descanso en jornada continuada:

La Empresa establecerá el sistema organizativo (medios técnicos y humanos) que permita compaginar el derecho al des-canso preceptivo de 15 minutos (por cuenta de la Empresa) con la no interrupción de los procesos industriales y técnicos.

6.7. Bolsa de horas sobre jornada pactada:

Teniendo en cuenta la jornada anual establecida y una vez confeccionado el calendario anual de trabajo, si de dicho calen-dario resultase un excedente de días/horas, éstas podrán dis-fruitarse de acuerdo con los siguientes criterios:

1. Los primeros 2 días, a elección del/la trabajador/ra acumulable a los 13 días de vacaciones consecutivas que se in-dican en el art. 8.º
2. El/La trabajador/ra tendrá derecho a elegir el disfrute del 50 % de las horas de dicha bolsa, fuera de los periodos es-tablecidos en el párrafo 3.º del art. 8.º, no debiendo coincidir con personal del mismo puesto de trabajo y/o sección que pueda originar problemas en la organización. La Empresa podrá realizar los cambios de relevo y/o turno que sean precisos para garantizar dicho derecho.

Si al finalizar el 3.er trimestre no hubiese disfrutado de los días de descanso correspondientes a dicho periodo, el trabaja-dor/ra podrá solicitar el disfrute de los mismos dentro del 4.º tri-mestre, otorgándose dichos días de acuerdo con la Dirección de la Empresa, previa comunicación con 15 días de antelación.

6.8. Arranque de máquinas:

El arranque de calderas tras uno de los 4 festivos y previa a una jornada productiva:

– Calderas: 1 persona realizará el horario de 5:00 horas a 14:00 horas.

Domingos mañana:

– Recepción: 1 persona realizará el horario de 5:00 horas a 13:00 horas.

7. artikulua. Lan-kategoriak.

Esnelat SL enpresako langile guztiak honako lan-kategoria hauetako batean sartzen dira:

– Langile teknikoen taldea: honako azpikategoria hauek barne:

- Goi mailako teknikaria.
- Erdi-mailako teknikaria.
- Kalitate-teknikaria.
- Ataleko eta/edo saileko nagusia.
- Goi mailako sistema-teknikaria.
- Erdi mailako sistema-teknikaria.
- Esportazio teknikaria.
- Marketin-teknikaria.
- Merkatuen analista-teknikaria.
- Kudeaketa eta kontroleko teknikaria.
- Kontroleko teknikari laguntzailea.
- Kontramaisua.
- Arduraduna.
- Teknikaria (I+G).
- Kontroleko teknikaria.
- Linea-ikuskatzailea.
- 1. mailako laborategi-teknikaria.
- 2. mailako laborategi-teknikaria.
- Laborategiko teknikariaren laguntzailea.
- OLT.

– Administrazioko langileak: honako azpikategoria hauek barne:

- 1. mailako burua.
- 2. mailako burua.
- Sistema-analista.
- Idazkaria.
- Kutxazaina.
- Lehen mailako ofiziala.
- Bigarren mailako ofiziala.
- Administrari laguntzailea.
- Analista programatzailea.
- Programatzailea.
- Informatika-sistemen operadorea.
- Komertzialak eta Marketin langileak:
 - Atal kudeatzailea.
 - Salmenta-ordezkarria.
 - Kontu orokorren arduraduna.
 - Merkataritza-ordezkarria.
 - Salmentetako burua.
 - Merkataritza-sustatzailea.
 - Product Manager junior.
 - Product Manager junior.
 - Kategoria kudeatzailea.
 - Saltokiko kudeatzailea.
 - Sustatzaile juniorra.

Artículo 7.º Categorías laborales.

Las categorías laborales a las que se adscribirán todos los/las trabajador/ras de plantilla de Esnelat S.L. serán las siguientes:

– Personal Técnico: Comprenderá las siguientes categorías:

- Técnico superior.
- Técnico medio.
- Técnico de Calidad.
- Jefe de Sección y/o departamento.
- Técnico de sistemas superior.
- Técnico de sistemas medio.
- Técnico de exportación.
- Técnico de Marketing.
- Técnico-Analista de Mercados.
- Técnico de control-gestión.
- Técnico-Auxiliar de controler.
- Contraemaestre.
- Encargado.
- Técnico de I+D.
- Técnico de Control.
- Inspector de Lineas.
- Técnico 1.ª Laboratorio.
- Técnico 2.ª Laboratorio.
- Ayudante Técnico de Laboratorio.
- A.T.S.

– Personal Administrativo: Comprenderá las siguientes categorías:

- Jefe de 1.ª
- Jefe de 2.ª
- Analista de sistemas.
- Secretaria.
- Cajera.
- Oficial de Primera.
- Oficial de Segunda.
- Auxiliar Administrativo.
- Analista Programador.
- Programador.
- Operador de Informática.
- Personal Comercial-Marketing:
 - Gerente de Área.
 - Delegado de Ventas.
 - Responsable cuentas clave.
 - Delegado Comercial.
 - Jefe de Ventas.
 - Promotor Comercial.
 - Product Manager Senior.
 - Product Manager junior.
 - Gestor por categorías.
 - Gestor punto de venta.
 - Promotor junior.

– Mendeko langileak: honako azpikategoria hauek barne:
Biltegi-zaina.

Zaindaria edo atezaina.

Langile soilak: honako azpikategoria hauek barne:

Peoia.

Peoi espezializatua.

3. mailako espezialista.

2. mailako espezialista.

1. mailako espezialista.

1. mailako ofiziala - Gidaria.

1. mailako ofiziala - Lanbidea.

2. mailako ofiziala - Lanbidea.

1. mailako ofiziala - Zerbitzuak.

2. mailako ofiziala - Zerbitzuak.

8. artikulua. Oporrak.

Hitzarmen honetan sartzen diren langile guztien oporraldia 26 egun iraungo du, urte naturalaren barruan, larunbatak, igandeak eta jaiegunak kontuan izan gabe. Lanean urtean zehar hasten diren langileek lanean egindako hilabeteen arabera dagozkien oporrak hartzeko eskubidea izango dute.

A) Oporrak, ahal bada, ekaina eta iraila bitartean (biak barne) hartuko dira, eta langile bakoitzarentzat opor-egutegi bat ezarriko da urte bakoitzeko otsailaren 28a baino lehen. Langileak elkarren segidako 13 opor-egun hartzeko eskubidea izango du, eta horiekin batera, 6.7 artikuluan ezarritako ordu-poltsako 2 egun. Ordainsaria erantsitako tauletan jasotakoaren arabera izango da.

– Udan:

Txanda guztiek elkarren segidako hiru asteko oporraldia izango dute esandako aldian, hau da, ekaina eta iraila bitartean.

Opor-egunak abuztuan hartuko dituen txandaren oporraldia abuztuaren 5a barnean hartzen duen astean hasiko da, eta hori erreferentzia hartuta (udaren erdia) esleituko dira gainerako txandei dagozkien asteak.

Udako oporraldian, gehienez ere 9 astebetez egin daiteke lan etenik gabe.

– Aste Santua:

Aste Santuko oporraldiko lehenengo astea (Ostegun eta Ostiral Santua barnean dituen) oporrak abuztuan izango dituen txandari, eta bigarrena (Pazko-bigarrenekoa) oporrak irailean hartuko dituen txandari egokituko zaio, jai horiek zein hilabeteetan izango diren kontuan hartu gabe.

– Eguberriak:

Gabonetako lehenengo astea oporrak ekainean izango dituen txandari egokituko zaio, eta bigarren astea oporrak uztailean izango dituenari.

Gabonetako oporrak, ahal bada, lan-egutegiko azken bi asteak izango dira. Gabonetako bigarren astea abenduaren 31 barnean hartzen duena izango da.

B) Oporrak aurreko apartatuan adierazitako alditik kanpo hartzen dituzten langileek poltsa ekonomiko bat jasotzeko eskubidea izango dute, honako irizpide hauei jarraikiz:

– 26 egunetatik elkarren segidako 10 eta 14 egun bitarteko oporraldia hartuz gero, 2021eko urtean, 235,714 euro edo 2 opor-egun gehiago.

– 26 egunetatik elkarren segidako 15 egun edo gehiagoko oporraldia hartuz gero, 2021eko urtean, 402,010 euro edo 3 opor-egun gehiago.

– Personal subalterno: Comprenderá las siguientes categorías:
Almacenero.

Guarda o portero.

Personal Obrero: Comprenderá las siguientes categorías:

Peón.

Peón Especializado.

Especialista de 3.^a

Especialista de 2.^a

Especialista de 1.^a

Oficial 1.^a Chofer.

Oficial 1.^a Oficio.

Oficial 2.^a Oficio.

Oficial 1.^a Servicios.

Oficial 2.^a Servicios.

Artículo 8.º Vacaciones.

Las vacaciones para todo el personal afectado por este Convenio tendrán una duración de 26 días dentro del año natural sin computarse sábados, domingos y festivos. El personal que ingrese en el transcurso del año tendrá derecho a la parte proporcional de vacaciones según el número de meses trabajados.

A) Las vacaciones se disfrutarán preferentemente en los meses de junio, julio, agosto y septiembre, estableciéndose un calendario de vacaciones individual para cada trabajador/ra antes del 28 de febrero de cada año, teniendo derecho el/la trabajador/ra a disfrutar en dicho periodo 13 días laborales consecutivos, pudiendo disfrutar conjuntamente los 2 días de bolsa de horas establecidos en el art. 6.º-7, siendo la retribución conforme a lo establecido en Tablas anexas.

– Verano:

Todos los turnos tendrán tres semanas consecutivas de vacaciones en dicho periodo de junio a septiembre.

El turno que tiene vacaciones en agosto las comenzará a disfrutar la semana que incluya el 5 de agosto, y con esta referencia (que es la mitad del verano) se atribuirán las demás semanas correspondientes a los demás turnos.

Durante el periodo vacacional de verano no se podrá superar un máximo de 9 semanas continuas trabajadas.

– Semana Santa:

La primera semana de vacaciones en semana santa (la que incluye el jueves y viernes santo) le corresponderá al turno que tenga vacaciones en agosto y la segunda (la que incluye el lunes de pascua) al turno que tenga vacaciones en septiembre, independientemente del mes en que caiga esta festividad.

– Navidad:

La primera semana de navidad le corresponderá al turno que tenga vacaciones en junio y la segunda al turno que tenga vacaciones en julio.

Las vacaciones de navidad, serán preferentemente las dos últimas semanas del calendario laboral. Se considerará la segunda semana de navidad la que incluya el 31 de diciembre.

B) Los/Las trabajadores/ras que disfruten fuera del periodo indicado en el apartado anterior, tendrán derecho a percibir una bolsa económica conforme a los siguientes criterios:

– De 10 a 14 días disfrutados de forma continuada de los 26 días, siendo el año 2021 de 235,714 euros o bien 2 días más de vacaciones.

– De 15 o más días disfrutados de forma continuada de los 26 días, siendo el año 2021 de 402,010 euros o bien 3 días más de vacaciones.

C) Hartzen diren langile berriek lanean hasten diren egunaren arabera dagozkien opor-egunak hartuko dituzte, urte naturala amaitu baino lehen.

D) Enpresak idatziz berretsiko du langile bakoitzaren oporraldia, hasi baino gutxienez 2 hilabete lehenago, langilearen asmoak galdetu eta langile taldearen egutegi orokorra aztertu ondoren.

9. artikulua. Ordaindutako lizentziak.

Enpresa lizentzia ordainduak emango ditu, taulen arabera soldata ordainduta, honako kasu hauetan:

A. Langilea ezkontzen denean, egutegiko 20 egun; dagozkion opor-egunen erdiarekin batera har daitezke.

B. Seme-alabak jaiotzen direnean, egutegiko 3 egun; horietatik gutxienez bi lanegunak izango dira. Zesarea bidezko erditzeen kasuan, lizentzia beste hiru egutegi-egunetz luza daiteke. Lizentzia hori beste bi egutegi-egunetz luzatu ahalko da, Autonomia Erkidegotik kanpo bidaiatu behar denean, 200 kilometro baino distantzia handiagora.

Garaiz aurreko edo erditu ondoren ospitaleratutako seme-alabak jaiotzeagatik:

Amak edo aitak egunean ordubetez utz dezake lana (lehenengo hiru asteetan), egoera horrek dirauen bitartean.

C. Edoskitze-aldia: Langileek aukera izango dute eskubide hori –eguneko ordubete– haurrak 9 hilabete bete arte metatzeko, eta amatasun-bajarekin batera hartzeko. Kasu horretan, enpresari jakinaraziko zaio baja-aldia amaitu baino 15 egun lehenago.

D. Langileak (emakumeak) haurdunaldian egin beharreko azterketak egiteko eta haurra izateko unerako prest egoteko teknikak lantzeko ezinbesteko denbora lanaldiaren barruan hartu behar duenean. Langileak (gizonak) eskubidea izango du bere emazte edo izatezko bikotekidearekin batera jaiopon aurreko azterketetara (3 aldiz) eta erditze-aldirako prestatzeko tekniken ikastarora (3 saio) joateko. Horretarako, aldeztu aurretik egin izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da, baita asistentzia justifikatu ere.

E. Ezkontidearen eta seme-alaben gaixotasun larriagatik, 4 egun edo 7 lanaldi erdi.

F. Etxe berean bizi izan den ezkontidearen edo seme-alaben heriotzagatik, egutegiko 7 egun izango ditu langileak; bestela, egutegiko 4 egun.

G. Gurasoen, aitagarreba-amaginarreben edo neba-arreben gaixotasun larriagatik edo heriotzagatik, egutegiko 3 egun.

H. Ezkontzako anaiaren, arrebaren, aitona-amonen eta ezkontide bietako baten biloben gaixotasun larriagatik edo heriotzagatik, 2 egun edo egun bat eta 2 lanaldi erdi.

I. Osaba-izeben eta lehengusu-lehengusinen hiletak, urtean 8 ordu.

B, E, F, G eta H puntuetako kasuetan, lanaldiaren barruan gertatzen bada (lanaldiaren azken 4 orduetan) edo dagoeneko gertatu bada, hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

E, G eta H puntuetako kasuetan, gaixotasun larriak dirauen bitartean, lizentzia-egunak langileak aukeratu ahal izango ditu, betiere enpresarekin adostuta. Adostasunik egon ezean, lizentzia-egunak bata bestearen jarraian hartu beharko dira.

Gaixotasuna «larritzat» jotzeko, mediku ziurtagiria edo Ospitaleratzearen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Gaixotasun larria edo heriotza ohiko bizilekua dagoen probintziatik kanpo gertatzen denean, 200 km baino urrunago, lizentzia horiek beste egun batez luzatuko dira.

C) El personal de nuevo ingreso disfrutará las vacaciones que le correspondan, teniendo en cuenta su fecha de ingreso, antes del finalizar el año natural.

D) La Empresa confirmará por escrito el periodo de vacaciones de cada trabajador/ra con una antelación mínima de 2 meses a la fecha de su disfrute, previo conocimiento de sus deseos y analizado el calendario general de la plantilla.

Artículo 9.º Licencias retribuidas.

La Empresa concederá licencias retribuidas con abono del salario establecido en Tablas en los siguientes casos:

A. Matrimonio del/la trabajador/ra, 20 días naturales, pudiendo disfrutarlos juntamente con la mitad de las vacaciones que correspondan.

